

## Juduak Euskal Herrian

*Deia*, 1983-07-07.

Erdi Aro guztian Hispaniako erresuma eta herrialdeetan juduak gizarte eta ekonomia aldetik estimagarriak ziren.

Euskal Herrian ere bai.

Juduen hedapena ez zen, hala ere, Euskal Herri osoan berdina izan. Juduen komunitate bat ba zen *Bizkaian*, Valmasedan; Gipuzkoan ez, dirudienez, batez ere Hegoan finkatu bai ziren: *Nafarroako* Tuteran (Tudela), Lizarran (Estella), Funes-en, San Adrianen eta Lerinen, batez ere; eta *Arabako* Gasteiz-Vitorian nagusiki, baina baita Beranturi (Berantevilla), Gesaltza (Salinas de Añana), Agurain (Salvatierra), Kanpezu (Campezo), Bastida (La Bastida), Urizaharra (Peñacerrada), Leza, Biasteri (Laguardia), Pilarpen (Elvillar) herrietan ere.

Komunitaterik handiena Gasteizkoa zen, dudarik gabe, hiriak 10.000 bizilagun zituenean, juduak baziren 2.000.

Nondik etorriak?

Visigothuen garaian (V-VI mendeetan) bazen judurik Hispanian; mairuak indarrez hegoaldetik sartu zirenean, juduek iparraldera jo zuten, eta Araba eta Nafarroara ere bai. Badirudi lehenengo nahaste artean ez zirela nabarmendu; baina kristau erresumak bere legeak finkatzen hasi zirenean, juduez ohartu ziren. Erlijiozkoa zen arazoa, eta leku gehienetan. "Juderia" deitzen zioten hormaz mugatutako auzategietan bizitzera behartzen zituzten.

Eta beste mugapenak jarri ere.

Errege Katolikuek 1492an, beste astakerien artean judu guziak Hispaniatik botatzea erabaki zuten, eta modu txarrean, gainera, zituzten ondasun gehienak kendu eta bidali bai zituzten! Nafarroa Erresuma independentea zenez gero, aginduak ez zuen ukitu; hala ere, zortzi urte barru erlijioaren aldeko presioaz irten ziren gehienak; erlijioz aldatu ziren 180 familiak geratu ahal izan zuten Tuteran. Juduen beharrik sumatu zen, batez ere Gasteizen, eta haietako zen Antonio Fornay sendagileari geratzeko eskatu zioten urtean 10.000 maraberien soldatarekin.

Gasteiztik irten behar izan zuten juduek, hirian izan zuten tratua eskertzeko, bere hilerria udalari utzi zioten zelai bezala gorde zezaten. Ordukoz, Juderia kalea, "Berria" deitua izan zen; sinagoga, udalak ikastetxe bihurtu zuen, eta Judismendi hilerria, zelai. Zuhaitzez hornitua dagoen jardín honetan 1952an monolitoa eraiki zen. Hemen agertzea da Baionako juduen Ajamak (juduen batzarra) Gasteizko udalari Judismendiko lurra osorik libratzeko idatzi zuen agiriaren testoa.

Ajama honetako juduek Gasteiztik boteak izan ziren ondorengo dira; hemendik joan eta Baionan, oraindik Euskal Herrian, finkatu bai ziren.